

LAN BERDINAK SOLDATA ~~(des)~~ BERDINAK

Sexuaren araberako lan banaketan oinarritutako soldata arrakala egiturazkoa da eta datu ofizialek erakusten dutena baino altuagoa. Sektore maskulinizatu baten arteko (metalagintza, eraikuntza, kale garbiketa...) eta sektore feminizatu baten arteko (elikagaigintza merkataritza, helduen egoitzak, aretoetako garbiketa...) hitzarmenak alderatzen baditugu, aldea askoz handiagoa da: **kasu batzuetan %80-90eko aldea dago** (Gipuzkoako eraikuntzako biltegiko peoiak, helduen egotzetako kategoría bereko langilearen soldata baino %90,30 gehiago kobratzen du), sektore maskulinizatu bateko langileak feminizatu batekoaren soldata ia bikoitza izan dezake.

Lan berdina egiteagatik ez da inondik ere soldata bera jasotzen. **Balio ezberdina ematen zaio lanari sexuaren arabera eta sozialki oso barneratuta dago ideia hori. Emakumeek egiten dituzten lanak zaintzari loturikoak** dira hein handi batean eta hori da **gure lanen devaluazioaren oinarria**, lan merkatuan zein lan merkatutik kanpo.

Patronalak eta instituzioek dute erantzukizuna. Patronalak soldata arrakalaren erantzule eta irauarazle dira, eta aldi berean, instituzio publikoak ere erantzule zuzenak dira: zerbitzu publikoak pribatizatzen dituzte, zaintza lanekin negozioa egiten dute etab.

Egiturazkoa izateaz gain, **zapalkuntza ardatz gehiagorekin gurutzaten denean**, izan jatorria, klasea, aniztasun funtzionala... **generoagatiko-soldata arrakala handitu egiten da.**

Egoera honen aurrean, borroka eta negoziazio kolektiboaren garrantzia azpimarratzen dugu LABetik, baita instituzio publikoei dagokien ardura betetzeko honako aldarriak:

> Sexuaren araberako lan banaketarekin amaitzea eta lan eta enplegu guztien birbalorizazioa egitea.

> Hitzarmen kolektiboetan lanpostuen balorazio feminista sartzea.

> Zor patriarkala zuzenketa faktore gisa aplikatzea.

> Zaintzarako euskal sistema publiko-komunitarioa. Zaintzaren demokratizazioaren alde pausoak ematea; zaintza lanak jendartean modu justu batean banatzea; egungo prekarizazioarekin eta pribatizazio eta negozioarekin amaitzea.

> Sektore maskulinizatu zein feminizatuen arteko soldatak parekatzeko konpromisoa (erakundeek patronala behartuz horretara). Baita herrialdeen arteko kategoría berdinetan desberdintasunak gutxitzeko plan bat garatzea ere.

> Emakume* migratu eta arrazializatuen egoera jasotzen duten estatistikak sortu, ikusgarri egin eta estrategía zehatzak planteatu (gaur gaurkoz ikusezinak dira). Enplegu eta eskubideen arteko lotura apurtu. Inor ez da ilegala!

> Pribatizatutako sektore publikoko zerbitzuetan (adinekoren egoitzak, etxez etxeko laguntza, garbiketa...) alderdi politikoen borondatea egoerari buelta emateko (publikazioak; gutxieneko lan baldintza esleipenetan; enpresa pribatuei muga zehatzak jartzea...).